

PRENTSA OHARRA: 2026.09.07

Lasala, Ertza, Marie de Jongh eta Koilara Teatro euskal konpainiek hartuko dute parte Fira Tàrregan

- Euskal artistek nazioarteko arte eszenikoen ekosistemarekin harremanak sortu eta sendotzeko erreferentziazko azoka estrategikoa da Fira Tàrrega
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Etxepare Euskal Institutuak eta Artekalek antolatuta, azokak ‘Basque. Performing Arts.’ jardunaldi profesionala hartuko du irailaren 12an
- Edizio honetan, euskal arte eszenikoetako 40 profesional, programatzaile eta ordezkari baino gehiago bertaratuko dira azokara

2026eko irailaren 7a- Tarregako (Lleida) Fira de Teatre al Carrer azoka irailaren 10etik 13ra egingo da eta Etxepare Euskal Institutuarekin duen lankidetzari esker, aurtan **Lasala, Ertza, Marie de Jongh eta Koilara Teatro** konpainia eta taldeek jardungo dute kale-antzerkia ardatz duen azokan. Euskal ordezkaritza artistiko horrez gain, euskal arte eszenikoei eskainitako **Basque. Performing Arts.** jardunaldi profesionala hartuko du jaialdiak **irailaren 12an**.

Lasalak ‘Burnt’ aurkeztuko du, egungo gizartearen gehiegizko exigentzia eta kontsumo-joerak abiapuntu hartuta, akiduraren eta burnoutaren inguruan hausnartzen duen proposamena. **Ertzak konpainiak**, berriz, ‘Un’we’ eramango du oholtzara, lan-esplotazio modu berriak, indibidualismoa eta sare sozialekiko mendekotasuna ardatz dituen dantza garaikideko pieza. **Marie de Jonghek** ‘Bo familia’ kale-antzerki ibiltaria plazaratuko du, botere-abusua eta turistifikazioa umorearen bidez jorratzeko. Azkenik, **Koilara Teatrot** ‘La llegada’ aurkeztuko du, klowna, antzerki fisikoa eta hitzezko trebezia uztartzen dituen lana, estralurtarren balizko etorrera baten zuzeneko kontakizunetik abiatuta irudimenezko unibertso bat eraikitzen duena.

Euskal konpainien parte-hartzea Etxepare Euskal Institutuak euskal sorkuntza garaikidearen nazioartekotzea sustatzeko egiten duen lanaren baitan kokatzen da. Testuinguru horretan, Fira Tàrrega kultura-merkatu estrategikoa da: euskal sorkuntzaren erakusleaho izateaz gain, artistei nazioarteko arte eszenikoen ekosistemako eragileekin harremanak sortu eta sendotzeko aukera eskaintzen dien topagunea. Etxepare Euskal Institutuak urtero babesten du euskal sortzaileen presentzia azokaren egitarauan, haien lanen nazioarteko zabalkundea eta sektorearen profesionalizazioa sustatzeko. Hala, euskal konpainiek azokak eskaintzen dituen proiektzioa, aitortza eta harreman-sarea baliatzeko aukera dute.

Basque. Performing Arts.

Fira de Teatre al Carrer azokaren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lankidetzak sendotu egin da azken urteotan. Elkarlan horren erakusgarri dira, alde batetik, **Basque. Performing Arts.** standak azokaren eremu profesionalean eta, bestetik, izen bereko jardunaldi profesionala, Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Artekale Euskal Herriko Kale Arteen Elkarteak irailaren 12an Fira Tàrregan antolatuko dutena.

Jardunaldiaren helburua euskal arte eszenikoetako sortzaileen eta nazioarteko programatzaile eta profesionalen arteko harremanak sustatzea da, euskal lan eta ikuskizunen nazioarteko zabalkundeari bide berriak ireki eta Euskal Herriko arte eszenikoen sektorea sendotzeko.

Fira Tàrrega

1981ean sortutako jaialdia arte eszenikoen erakusleaho aparta da gaur egun, kaleko arteetan eta eremu publikoan arreta berezia jartzen duen programazio heterogeneoari esker. Arte eszenikoen topagune bihurtu da estatu eta nazioarte mailan. Aurten, arte eszenikoetako 40 euskal profesional, programatzaile eta ordezkari baino gehiago bertaratuko dira azokara.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua euskara eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakundea da. 2010ean sortu zenetik, euskal sorkuntza garaikideari ikusgarritasuna emateko, atzerrian euskararen irakaskuntza eta erabilera sustatzeko eta nazioarteko kultur lankidetzak sustatzeko lanean dihardu.

PROGRAMA

LASALA, 'Burnt'

Gero eta zorrotzagoa den ispilu sozial baten aurrean, badirudi gauero are biziago distiratzeko delako estrategia posible bakarra. Hainbesteko kontsumoak, ordea, badu bere ordaina, argiaren inguruan hegan egiten duten sitsek ordaintzen duten berbera: bat-bateko burnout batean kiskaltzeko arriskua.

- Irailak 10, 16:00etan. Piscines municipals
- Irailak 11, 11:00etan. Piscines municipals

ERTZA, 'Un'we'

Lan-esplotazio modu berrietan, muturreko indibidualismoan eta sare sozialekiko mendekotasunean inspiratutako dantza garaikideko pieza. Bi protagonistek, mendeak igaro diren arren, oinak kateatuta dituztela sentitzen dute oraindik: zenbat eta gehiago eragin pedalei, orduan eta gehiago bidali ahal izango diete urrun dituzten familiei. Bizirik irauteko ahalegin etengabea, irteerarik gabeko gurgil batean harrapatuta daude, akitu arte.

- Irailak 10, 19:30ean. Plaça Nations
- Irailak 11, 12:00etan. Plaça Major eta 18:30ean. Plaça Nations

MARIE DE JONGH, 'Bo familia'

Tirania, botere-abusua eta morrontza ardatz dituen kale-antzerki ibiltaria. Mr. Bueno turista lotsagabe, apetatsu eta dibertigarria da, ezezkorik entzuten ohitu gabea.

Morroiak atzetik dituela eta bere botereaz harro, espazio oro bereganatu eta inguruko guztiak bere zerbitzura jartzea espero du. Komedia naïfaren bidez, turistifikazioaz eta guztiok barruan daramagun turistaz hausnartzen du lanak.

- Irailak 10, 18:30ean. Ibiltaria eta Plaça del Carme
- Irailak 11, 12:00etan eta 18:00etan. Ibiltaria eta Plaça del Carme
- Irailak 12, 12:30ean eta 17:50ean. Ibiltaria eta Plaça del Carme

KOILARA TEATRO, 'La Llegada'

Klowna, antzerki fisikoa eta hitzezko trebezia uztartzen dituen kale-antzerkiko proposamena. Ontzi estralurtar bat Lurrera iristear da, eta Koilara Irratiko bi erreportarik zuzenean emango dute gertakari historikoaren berri. Pertsonaia bitxiz, egoera zentzugabez eta misterioz beteriko kontakizunaren bidez, 'La Llegada' lanak irudimenezko unibertso bat eraikitzen du, ikuslea ezohiko topaketa baten lekuko bihurtzeko.

- Irailak 11, 17:00etan. Espai Reguer 2
- Irailak 12, 17:00etan. Espai Reguer 2
- Irailak 13, 17:30ean. Plaça Nations

Info+

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus